



AZKEN HILABETEAN NONAHI IKUSI AHAL IZAN DIRA UHARTE HONETAKO IRUDIAK. Aire-zirkulazioan eragin duen kaosagatik, famatu bihurtu da Eyjafjallajökull sumendiak jaurtitako errauts-lainoa. Ez da aitzakia txarra uharte hartara begira jartzeko; izan ere, errauts-lainorik ez dagoenean ere, nahikoa ikusgarria bada Islandia.

Barrutik bero eta kanpotik hotz. Ozeano Atlantikoaren iparraldean, zirkulu polar artikatik oso gertu dago Islandia. Glaziarrek, izotza eta elurra ohiko elementuak dira han. Eta elurrak urtzean, erreka eta ibai ugari sortzen dira. Islandian nonahi daude erreka, ibai, putzu, aintzira eta ur-jauzi ikusgarriak.

Putzu horietako asko ur berokoak dira. Izan ere, barrua irakiten dauka Islandiak. Uharte osoan ur beroko 600 iturburu baino gehiago daude; batzuk 150 gradutik gorako urekin. Islandiako etxeen % 89 lurpeko ur beroarekin berotzen dira.

Barruko bero horren adierazle garbia da Eyjafjallajökull sumendia ere. Islandiako 35 sumendi aktiboetako bat da. Martxoan hasi zen laba isurtzen, eta, geldialdi baten ondoren, apirilaren 14an berriz piztu zen sumendia, errauts-laino famatua jaurtitzen hasteko. ●



# ISLANDIA

## hotzean bero





OIHANA CARTON



OIHANA CARTON



Txomin Orbañanos oriotarra eta  
Javi Fernandez de Betño  
gasteiztarra Islandian ziren  
sumendia errautsa jaurtitzen hasi  
zenean. Haiek bidali digute argazki  
hau. ARG.: TXOMIN ORBAÑANOS.



OIHANA CARTON



OIHANA CARTON



EIDER CARTON



EIDER CARTON